


DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

GIZA ESKUBIDEEN
VI. ZINEMALDIA

VI FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS



© 2008, GIZAKO HERRIEN KINEMATOGRAFOA

apirilaren 18tik 25era
del 18 al 25 de abril
2008



ZINEMA
CINE



DANTZA
DANZA



ANTZERKIA
TEATRO



ERAKUSKETAK
EXPOSICIONES



LITERATURA



MAHAI-INGURUA
MESA REDONDA



MUSIKA
MÚSICA




		apirilak 18 abril	
		MUSIKA / MÚSICA	JUM JUM
			DAVID ESCUDERO QUARTET
	19:30	(INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN)	Cargo
			Paseo
			COLINAS CIEGAS
	23:00	Alumbramiento	SIN VENDAS EN LA MEMORIA
		apirilak 19 abril	
	17:00	Ovog puta ne možemo reći da nismo znali	EZRA
	19:30	Mbeubeus	KLASS
	23:00	Wrestling	A JIHAD FOR LOVE
		apirilak 20 abril	
	17:00	DANTZA / DANZA	ARGIRA
	18:00	MUSIKA / MÚSICA	ANTZOKI ZAHARRA / TEATRO PRINCIPAL
			(SARRERA DOAN / ENTRADA LIBRE)
			LURRAREN SOINUAK / SONIDOS DE LA TIERRA
	19:30	Einspruch V	WHITE TERROR
		apirilak 21 abril	
	17:00	PERSÉPOLIS	
	18:00	LITERATURA	LIBURUTEGI NAGUSIKO EKITALDI ARETOA
			SALA DE ACTIVIDADES DE LA BIBLIOTECA CENTRAL
			(SARRERA DOAN / ENTRADA LIBRE)
			DK.LITERATURA (Habíamos ganado la guerra)
	19:30	MADRES	
	23:00	Don Robertos skugga	WAR / DANCE
		apirilak 22 abril	
	17:00	EL PEQUEÑO SALVAJE	
	19:30	Desarrollo humano	EL BANO DEL PAPA
	23:00	The Italian Doctor	ELLE S'APPELLE SABINE

- apirilak 23 abril** 18:00 **ANTZERKIA / TEATRO**
 KLUB ARETOA / SALA CLUB
 (SARRERA DOAN / ENTRADA LIBRE)
 KALEAN USO, ETXEAN OTSO
- 19:30 **FGM**
TO DIE IN JERUSALEM
- 23:00 **Solitario anónimo**
WABAN-AKI. PEOPLE FROM
WHERE THE SUN RISES
- apirilak 24 abril** 18:00 **ANTZERKIA / TEATRO**
 KLUB ARETOA / SALA CLUB
 (SARRERA DOAN / ENTRADA LIBRE)
 KALEAN USO, ETXEAN OTSO
- 18:00 **MAHAI-INGURUA / MESA REDONDA**
 CRISTINA ENEA
 (SARRERA DOAN / ENTRADA LIBRE)
 Klima aldaketa eta migrazio-fenomenoak /
 Cambio climático y fenómenos migratorios
- 19:30 **Do-it-yourself**
UBER WASSER, MENSCHEN
UND GELBE KANISTER
- 23:00 **Candy Boy**
LE PAPIER NE PEUT PAS
ENVELOPPER LA BRAISE
- apirilak 25 abril** 19:30 (BUKAERA / CLAUSURA)
PAISITO
- MUSIKA / MÚSICA**
JORGE PRIMO
JAVI P3Z

Sarrera / Entrada: 3,70 €
Abonoa (emanaldi guztiak eta katalogoa barne) / Abono para todas
las sesiones (incluye catálogo): 18 €

Film guztiak jatorrizko bertsioan emango dira, gaztelaniaz azpidatzita, SOLITARIO ANÓNIMO eta WABAN-AKI. PEOPLE FROM WHERE THE SUN RISES salbu; hauek euskeraz azpidatzita.
Todas las películas se proyectarán en versión original subtitulada en español excepto SOLITARIO ANÓNIMO y WABAN-AKI. PEOPLE FROM WHERE THE SUN RISES, que se subtitularán en euskera.



ZINEMA
CINE



apirilak 18 abril

• 19:30

INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN



Cargo (2007). Leo Woodhead. Zeelanda Berria-Txekiar Errepublika. 12 min.

Saldua izateko bahitutako ume batek aurre egiten dio harrapatzaileari; baina prozesuan bere alderdirik ilunenaz jabetzen da.

Un niño secuestrado para ser vendido se enfrenta a su captor, pero en este proceso descubre su lado más oscuro.



Paseo (2007). Arturo Ruiz Serrano. Espainia. 12 min.

Gabinok ez dio inoiz emakume bati bere maitasuna agertu...

Gabino nunca se declaró a una mujer...

Emakumeen esplotazioa / Mujeres y explotación



COLINAS CIEGAS (*Mang shan*, 2007). Li Yang. Txina. 97 min.

Laurogeita hamarreko urteen hasieran, Bai Xuemei ikasle gaztea bahitua izan da, eta Txina iparraldeko azken bazterreko herrixka bateko nekazari bati saldua. Etengabe da bortxatua eta gaizki tratatua, komunitate osoaren oniritziz, zeren eta haientzat emakume baten erosketa gauza arrunta baita. Handik ihes egiteko saio guztiak alferrik dira.

A comienzos de los años noventa, Bai Xuemei, una joven estudiante, es secuestrada y vendida como esposa a un granjero de un pueblo remoto del norte de China. Violada y maltratada continuamente ante la aquiescencia de toda la comunidad, para quien la compra de mujeres es una práctica habitual, todos sus intentos de escapar de allí son infructuosos.

apirilak 18 abril



• 23:00



Alumbramiento (2007). Eduardo Chaperó-Jackson. Espainia. 15 min.

Gau batez, familia bat bildu da amaren bizitzaren azken minutuak elkarrekin ematearren.

Una familia se reúne una noche para compartir los últimos minutos de la vida de la madre, postrada en una cama y conectada a un respirador.

Indarkeria terrorista eta bere biktimak
La violencia terrorista y sus víctimas



SIN VENDAS EN LA MEMORIA (2007). Manuel Palacios. Espainia. 79 min.

Parte hartzen dutenak biktimak dira. Bidean. Beti bidean. Bakarrik ibiltzen dira bidean. Hitz egiten dute, oroimenean bendarik gabe, hitz egin ere. Lehen aldiz egiten diote aurre kamera bati. ETArek atentatu batek bizitza aldarazi zien eguna dute gogoan.

Las personas que intervienen son víctimas. Caminan. Siempre caminan. Caminan solos y solas. Hablan y lo hacen sin vendas en la memoria. Es la primera vez que se enfrentan a una cámara. Recuerdan el día en que un atentado de ETA les cambió la vida.

TERRO-
RISMOA
ETA
BIKTIMAK



apirilak 19 abril

• 17:00




Ovog puta ne možemo reći da nismo znali / This Time We Can't Say We Didn't Know (2008). Slaven Žimbrek. Kroazia. 3 min.

Darfur (Sudan). 400.000 pertsona asasinatuta. 2,5 milioi lagun lekualdatuta. Oraingo honetan ezin esan ez genekienik.

AFRIKA

Darfur (Sudán). 400.000 personas asesinadas. 2,5 millones de desplazados. Esta vez no podemos decir que no lo sabíamos.

Gerra eta berradiskidetzea / Guerra y reconciliación



EZRA (2007). Newton I. Aduaka. Frantzia-Austria-Nigeria. 105 min.

Ezra, Sierra Leonako haur soldadu ohi bat, herrialdea txikitu duen gerra zibilaren ostean bizimodu normalera itzultzen saiatzen ari da.

AFRIKA

Ezra, un antiguo niño soldado de Sierra Leona, trata de volver a una vida normal tras la guerra civil que asoló su país.

• 19:30



Mbeubeus (2007). Simona Risi. Italia. 15 min.

Dakarreko zakarra egunero iristen da Mbeubeus-eko zabortegira. Denetariko 1.300 tona hondakin. 2.000 lagun baino gehiago dira bertan bizi eta lan egiten dutenak, gaiak bilduz, edota salduz, konponduz, birziklatuz.

AFRIKA

Todos los días la basura de Dakar llega al vertedero de Mbeubeus. 1.300 toneladas de desperdicios de todo tipo. Más de 2.000 personas viven y trabajan allí: unos recogen materiales, otros los venden, reparan o reciclan.

apirilak 19 abril



Bullying



KLASS (2007). Ilmar Raag. Estonia. 97 min.

Joosep-ek 16 urte ditu. Harentzat, eskolara joatea infernu hutsa da, ikaskideek jazarri eta eraso egiten baitiote. Egun batean, beste ikasle batek, Kaspar-ek, gainerako ikaskideei aurre egin eta defenditzen du.

Joosep tiene 16 años. Para él ir a clase siempre ha sido un infierno, perseguido y acosado por sus compañeros de clase. Un día otro alumno, Kaspar, le defiende, enfrentándose con el resto del aula.

• 23:00



Wrestling (2007). Grímur Hákonarson. Islandia. 21 min.

Bi borrokalariren arteko maitasun istorio bat nekazal giroko Islandian.

Una historia de amor entre dos luchadores en la Islandia rural.

Erljioa eta sexu orientaziorako eskubidea Religión y derecho a la orientación sexual



A JIHAD FOR LOVE (2007). Parvez Sharma. Estatu Batuak-Alemania-Britainia Handia-Australia. 81 min.

Islama da egun munduan jarraitzaile gehien duen bigarren erlijioa eta gehien hazten ari dena. Musulmana eta gaya den Parvez Sharma zine zuzendariak munduan barna bidaiatu du, gay eta lesbiana diren musulmanen bizipenak jasotzeko.

El Islam es hoy la segunda religión con más fieles y de mayor crecimiento del mundo. El director de cine musulmán y gay Parvez Sharma viaja a través del planeta en busca de las historias sobre sus vida que le cuentan lesbianas y gais musulmanes.



apirilak 20 abril



apirilak 20 abril



• 19:30



Einspruch V (2007). Rolando Colla. Suitza. 7 min.

Lantegi bateko jabeak, emakumezko etorkin ilegal bat bertan instalatu dela konturatzean, egotzi egin du. Bederatzi urteko semeak dena ikusi eta parte hartzea erabakitzen du.

El dueño de una nave industrial descubre que una inmigrante ilegal se ha instalado allí y la echa. Su hijo de nueve años presencia toda la escena y decide intervenir.

Xenofobia



WHITE TERROR (2005). Daniel Schweizer. Suitza-Frantzia-Alemania-Finlandia. 90 min.

Azken bost urteotan aldaketa esanguratsua eman da eskuin muturreko mugimendu erradikalean: lehengo kide zaharrak desagertu eta haien orde Europa osofik eta Iparramerikatik datozen ideologo berriak indarrez sartu dira. Ez da beharrezkoa burua soiltzea. Enpresak sortu dituzte, banaketarako konpainiak, aldizkariak, argitaletxeak, internet guneak... eta ikur zaharrak berriek ordeztu dituzte.

En los últimos cinco años ha habido un cambio significativo en los movimientos radicales de extrema derecha: los veteranos han desaparecido, siendo sustituidos por nuevos ideólogos que emergen con fuerza por toda Europa y Norteamérica. No es imprescindible afeitarse la cabeza. Han creado empresas, compañías de distribución, revistas, editoriales, sitios de internet... y han reemplazado los viejos símbolos por otros nuevos.



apirilak 21 abril

• 17:00

BIGARREN AUKERA / LA SEGUNDA OPORTUNIDAD

Fundamentalismo erlijiosoa
Fundamentalismo religioso



PERSÉPOLIS (*Persepolis*, 2007). Marjane Satrapi, Vincent Paronnaud. Frantzia-Estatu Batuak. 95 min.

Irandar neska baten historia da, Islamiar Iraultzaz geroztik gaur egunera artekoa. Bederatzi urte zituela, fundamentalistek agintea eskuratu eta beloa eramatera behartu zituzten emakumeak, eta milaka lagun kartzelaratu. Marjane Satrapik egin eta agertu orduko munduko liburutegi guztietan puripurian egondako izen bereko komikiaren adaptazioa.

Esta es la historia de una chica iraní desde la Revolución Islámica hasta nuestros días. Cuando tiene nueve años los fundamentalistas toman el poder, forzando a las mujeres a llevar velo y encarcelando a miles de personas. Adaptación del cómic homónimo de Marjane Satrapi, convertido desde su aparición en una obra de culto que ha llegado a las librerías de todo el mundo.

• 19:30

Estatu terrorismoa / Terrorismo de Estado



MADRES (2007). Eduardo Walger. Argentina. 117 min.

Plaza de Mayoko Amen zapi zuriak giza eskubideen aldeko Plaza de Mayo-ko amen zapi zuriak giza eskubideen aldeko sinbolo unibertsal bihurtu dira. **Madres** dokumentalak haien benetako historiara hurbiltzen gaitu.

Los pañuelos blancos de las Madres de Plaza de Mayo son un símbolo universal de la lucha por los derechos humanos. **Madres** es un documental que nos acerca a su verdadera historia.

LATINO-
AMERIKA

apirilak 21 abril



• 23:00



Don Robertos skugga / Don Roberto's Shadow (2007). Håkan Engström, Juan Diego Spoerer. Txile-Suedia. 29 min.

Roberto Saldivar kartzelaratua izan zen 1973an, Txile iparraldean kontzentrazio eremu bihurtutako meategi batean. Urteak iragan ondoren, berriro itzuli zen orain abandonatua dagoen toki hartara, bere mamuei buru egitera. Harrez geroztik hantxe bizi da.

LATINO-AMERIKA

En 1973 Roberto Saldivar fue encarcelado en una vieja mina del norte de Chile convertida en campo de concentración. Años después volvió a ese lugar, ahora abandonado, para enfrentarse con sus fantasmas. Desde entonces vive allí.

Hautzaroa: gerraren biktima
Infancia: víctima de la guerra



WAR / DANCE (2007). Sean Fine, Andrea Nix Fine. Estatu Batuak. 105 min.

Azken 20 urte hauetan, Lord's Resistance Army (LRA) taldeko errebeldeek Uganda iparreko ezin konta ahala neska-mutiko bahitu dituzte, soldadu edo esklabo sexual bihurtzeko. Adingabe askok Patongoko kanpamenduan bilatu dute aterpea. Musika eta dantza eskolak jasotzen dituzte bertan.

AFRIKA

Durante los últimos 20 años los rebeldes del Lord's Resistance Army (LRA) han secuestrado a infinidad de niños y niñas en el norte de Uganda con el fin de convertirlos en soldados y esclavas sexuales. Muchos menores buscan refugio en el campamento de Patongo, donde reciben clases de música y baile.



apirilak 22 abril

• 17:00

ZINEKO KLASIKOAK / CLÁSICOS DEL CINE

Hezkuntza eskubidea / Derecho a la educación



EL PEQUEÑO SALVAJE (*L'enfant sauvage*, 1970). François Truffaut. Frantzia. 83 min.

XVIII. mende bukaerako Frantzian, basoan animalien gisara hazia zirudien hamabi bat urteko mutikoa aurkitu eta harrapatu zuen ehiztari talde batek.

En la Francia de finales del XVIII, un grupo de cazadores descubre y captura a un niño de unos doce años que parece haberse criado en los bosques como un animal.

• 19:30



Desarrollo humano (2007). David Muñoz. Espainia. 29 min.

NBE Nazio Batuen Erakundeak urtero argitaratzen duen Giza Garapenaren txostenean, munduko herrialdeen ranking moduko bat ezartzen da, hainbat indikatzaile estatistikoren arabera.

La ONU publica cada año un Informe de Desarrollo Humano que establece un ranking mundial de países con base en una extensa relación de indicadores estadísticos.

AFRIKA

Txirotasuna / Pobreza



EL BAÑO DEL PAPA (2007). Enrique Fernández, César Charlone. Uruguay-Brasil-Frantzia. 97 min.

1988. urtea. Melo (Uruguai) Joan Paulo II.a Aita Santuaren bisitaren zain dago. Biztanle gehienak txiroak dira eta badakite horrek zer esan nahi duen: 50.000 erromes jan, paperezko banderak, oroigarriak... erosi nahian.

Año 1988. Melo (Uruguay) espera la visita del Papa Juan Pablo II. Los habitantes, pobres en su mayoría, saben lo que significa: 50.000 peregrinos querrán comer, comprar banderas de papel, recuerdos...

LATINO-AMERIKA

apirilak 22 abril



• 23:00



The Italian Doctor (2007). Esben Hansen. Danimarka. 28 min.

Alberto Cairo Kabuleko Gurutze Gorriaren Zentro Ortopedikoko zuzendaria da eta herrialde osoan minek zauritu eta mutilatutakoak birgaitzeko lanean dihardu.

Alberto Cairo es el director del Centro Ortopédico de la Cruz Roja de Kabul, dedicado a rehabilitar a los heridos y mutilados por las minas en todo el país.

Ezgaitasuna: autismoa / Discapacidad: autismo



ELLE S'APPELLE SABINE (2007). Sandrine Bonnaire. Frantzia. 85 min.

Sabine 38 urteko emakume autistaren erretratua, ahizpak, Sandrine Bonnaire aktoreak, egina. Ospitale psikiatriko batean bost urteko egonaldi tragiko baten ondoren, Sabine bizitzeko gogoa zer den Charente eskualdeko etxe batean berraurkitzen du.

Retrato de Sabine, una mujer autista de 38 años, realizado por su hermana, la actriz Sandrine Bonnaire. Tras una trágica estancia de cinco años en un hospital psiquiátrico, Sabine vuelve a descubrir el gusto por la vida en un hogar en la región de Charente.



apirilak 23 abril

• 19:30



FGM (2008). Jon Garaño. Espainia. 18 min.

Urtero munduan organo genitalen erauzketa, erabatekoa edo zatikakoa, pairatu beharrean egoten dira bi milioi neska.

Cada año dos millones de niñas en el mundo se exponen a que les sean extirpados, de manera total o parcial, sus órganos genitales.

AFRIKA

Terrorismoa / Terrorismo



TO DIE IN JERUSALEM (2007). Hilla Medalia. Israel-Estatu Batuak. 97 min.

17 urteko Rachel Levy neska israeldarra emakumezko palestinar terrorista suizida batek hil zuela bost urte igaro arren, amak, Avigail, ez du harrez geroztik bakerik batere aurkitu. Rachelen hiltzailea Ayat al-Akhras izan zen, 17 urteko ikaslea bera ere, errefuxiatu eremu batean bizi zena.

TERRORISMOA
ETA
BIKTIMAK

Pese a que ya hace cinco años que la joven israelita de 17 años Rachel Levy fue asesinada por una terrorista suicida palestina, su madre Avigail no ha encontrado desde entonces un momento de paz. La asesina de Rachel fue Ayat al-Akhras, también de 17 años, una estudiante residente en un campo de refugiados.

apirilak 23 abril



• 23:00



LATINO-AMERIKA

Solitário anônimo (2007). Debora Diniz. Brasil. 18 min.

Agure bat, belarretan etzanda, heriotzaren zain. Sakelan, papertxo batek urrutikoa dela ohartarazten du. Ez du beste agiririk ez ondasunik. Bere desioa bakarrik eta ezezagun hiltzea zen.

Un anciano echado sobre la hierba a la espera de la muerte. En su bolsillo un papelito anunciaba que era de tierras lejanas. No tenía documentos ni bienes. Su deseo era morir solitario y anónimo.

Hizkuntza gutxiak / Lenguas minorizadas



WABAN-AKI. PEOPLE FROM WHERE THE SUN RISES (2006). Alanis Obomsawin. Kanada. 104 min.

Obomsawin-ek **Waban-Aki. People from Where the Sun Rises** filmarekin aspaldi handian hasitako biribila itxi du. **Kanehsatake: 270 Years of Resistance** (1993), **My Name Is Kahentiiosta** (1995), **Rocks at Whiskey Trench** (2005) bezalako dokumentalekin Kanadako Lehen Nazioen bizitza kontatzen berrogei urte eman ondoren, hazi zen herrira itzuli da, bere jendearekin hitz egitera.

La carrera de Obomsawin cierra un círculo con **Waban-Aki: People from Where the Sun Rises**. Tras dedicar cuarenta años a contar la vida de las Primeras Naciones de Canadá en documentales como **Kanehsatake: 270 Years of Resistance** (1993), **My Name Is Kahentiiosta** (1995) o **Rocks at Whiskey Trench** (2005), vuelve al pueblo donde creció para hablar de su propia gente.



apirilak 24 abril

• 19:30



Do-it-yourself (2007). Eric Ledune. Belgika. 12 min.

"Noiz edo noiz giza eskubideak urratzen ez badituzu, beharbada ez zara zure lana ongi egiten ari"
(Washington Post, 2002-12-26)

"Si no violas los derechos humanos algunas veces, probablemente no estás haciendo bien tu trabajo"
(Washington Post, 26-12-2002)

TERRO-
RISMOA
ETA
BIKTIMAR

Klima aldaketa / Cambio climático



ÜBER WASSER, MENSCHEN UND GELBE KANISTER
(2007). Udo Maurer. Austria-Luxenburgo. 83 min.

Ura izan arren. Urrik gabe. Urarekin. Bangladeshen Brahmaputra ibaiko deltan uztak eta etxeak urtero suntsitzen dituzten uholdeetatik, behiala Aral itsasoaren ertzean arrantzaz bete-betean bizi zen eta orain Kazakhstango eremu mortuen erdian dagoen Aralsk hiriraino, tartean Kibera dela, Nairobiko txabola-azorik handiena, non upel horitan saldu eta garraiatutako ur edangarria lortzeko egunero borrokatu behar baita. Uraz mintzo diren hiru istorio.

AFRIKA

A pesar del agua. Sin agua. Con agua. Desde las inundaciones que asolan cada año las cosechas y las casas del delta del Brahmaputra, en Bangladesh, hasta la antaño floreciente ciudad pesquera de Aralsk, en el Mar de Aral, ahora anclada en mitad de las estepas de Kazajistán, pasando por la batalla diaria que se vive en Kibera, el mayor barrio de chabolas de Nairobi, en busca de agua potable, que se vende y se transporta en barriles amarillos. Tres historias que hablan del agua.

apirilak 24 abril



• 23:00



Candy Boy (2007). Pascal-Alex Vincent. Frantzia. 13 min.

Ikara umezurtegiak! Ume guztiak gaixotzen ari dira. Umeen artean ospe onenekoa, Candy Boy, ikerketan hasi da.

¡Pánico en el orfanato! Todos los niños comienzan a caer enfermos. El más popular de ellos, Candy Boy, investiga.

Emakumeak, pobrezia, prostituzioa eta hiesa
Mujeres, pobreza, prostitución y sida




LE PAPIER NE PEUT PAS ENVELOPPER LA BRAISE (2006). Rithy Panh. Frantzia. 90 min.

Rithy Panh ospe handiko zinema gile kanputxe arrak hemen bertan erakutsia digu duela urte batzuk **S21. La machine de mort khmère rouge** (2002) zirrara garria. Oraingo honetan al bait gehien hurbiltzen da prostituta baten bizitzara –eta heriotza espiritualera–. Erabateko usteltze soziala burutzen da atzerabiderik ez duen bidegabekeria konponezinarekin batera, alegia, gorputzaren desegitearekin batera. Phnom Penh Kanputxeako hiriburuko prostituta talde baten egunerokotasuna erretratatzeko zuzendariak: nola bizi, lan egin, sufritu eta noizbehinka amets egiten duten gorputza eta arima saltzera kondenatuta dauden emakumeok.

El prestigioso cineasta camboyano Rithy Panh –de quien hace unos años se pudo ver aquí la escalofriante **S21. La machine de mort khmère rouge** (2002)– se acerca tanto como le es posible a la vida –y a la muerte espiritual– de una prostituta. La descomposición social máxima finaliza con la irreparable injusticia de un proceso que no es reversible: la destrucción de un cuerpo. El cineasta retrata el día a día de un grupo de prostitutas de Phnom Penh (Camboya): cómo viven, trabajan, sufren y a veces sueñan unas mujeres condenadas a vender su cuerpo y su alma.



apirilak 25 abril



apirilak 25 abril



• 19:30

BUKAERA / CLAUSURA


Memoria historikoa
Memoria histórica



PAISITO (2008). Ana Díez. Espainia. 88 min.

Xavi, Iruñako Osasunaren futbol jokalaria berria da. Bere gurasoen lurraldera iritsi bezain pronto, iraganarekin egingo du topo aurrez aurre. Hogeitamarretik gora urte dituelarik, lehen aldiz irten da "Paisito"-tik eta Rosanarekin elkartu da berriz. Rosanak amodioaren eta gorrotoaren artean pasa ditu azken hogeitau urteak Xavi noiz etorriko zain, 1973ko Uruguai hartako oroitzapenak azal diezazkion. Demokrazia famatuak eta abelburuek herriaren nahigabea ezin ezkutatu zuten Uruguai hura; politikarien ustelkeria endemikoa, tupamaroak, milicoak eta hauek estatu-kolpea emango zutela jakina zen herrialdea.

Nada más pisar la tierra de sus padres, Xavi, futbolista, nuevo fichaje del Osasuna de Pamplona, se da de bruces con el pasado. A sus treinta y tantos acaba de poner por primera vez los pies fuera del Paisito y se reencuentra con Rosana, que entre el amor y el odio se ha pasado veinte años esperando que Xavi viniera a buscarla y le explicara sus recuerdos de aquel Uruguay de 1973. Aquel Uruguay en el que su famosa democracia y sus millones de cabezas de ganado no podían ocultar el descontento del pueblo, la corrupción endémica de los políticos, los tupamaros, los milicos o el golpe de Estado que ya se sabe que van a dar.



DANTZA
DANZA

apirilak 20 abril



• 17:00



ARGIRA


Verdini Dantza Taldea

Verdini Dantza Taldea formazio donostiarrak aspaldian lan egiten du ezgaitasuna duten pertsonekin. Lehengo ibilbideari zintzo jarriki, oraingo honetan emankizun berria aurkezten digu: **Argira**. Bertan, azken proposamenetik berrabiatuta, Isabel Verdini koreografoak kolokan erronka jotzen digu berriro...

“Maite dut, zaintzen eta babesten dut, harekin egiten dut gozatu eta negar, barre eta dardara, baita sufritu ere, baina... laguntzen al diot izaki libre gisa joka dezan? Uzten al diot berezko duen askatasuna erabil dezan, bere kasa antola dadin?”.

La compañía Verdini Dantza Taldea, veterana formación donostiarra que trabaja la danza con personas con discapacidad, fiel a su trayectoria nos presenta su nuevo espectáculo, **Argira**. En él, retomando su última propuesta, la coreógrafa Isabel Verdini nos vuelve a retar...

“Le amo, le cuido, le protejo, disfruto, lloro, río, vibro y sufro con él y por él, pero... ¿le ayudo y acompaño a realizarse como ser libre? ¿Le dejo utilizar, disponer de su libertad?”.



ANTZERKIA
TEATRO

apirilak 23-24 abril



• 18:00




KALEAN USO, ETXEAN OTSO

“Emmak jasandako indarkeria matxista erasotik abiatuta, beste hamaika emakumek jasandako erasoetara eta hauen bizipenei ahotza eman nahi diegu. Musika, dantza eta zuzeneko testigantzek hausnarketa eta eztabaida sortuko dute; horrez gainera, eta pentsarazteko izango diren irudi, ideia eta sentimenduak adieraziko ditugu. Maitasunaren ederrenetik, irainen zulora jaitsarazi eta tratatu txar fisikoen oinazeetan murgildu gara.

Kalean uso, etxean otso esaera zaharrak, egoera mingarri hau ondo adierazten du. Ikuskizun honen bitartez hausnarketari tarte eman nahi diegu, gizarteak halako egoera eta jarrerak normalizatzen ez dituzan, eta errotik ateratzeko”.

“Kalean uso, etxean otso quiere abrir un debate y poner voz a tanta injusticia y dolor silenciado, al problema generado por la violencia machista contra las mujeres, independientemente de su posición social, procedencia, cultura y edad, en el convencimiento de que es un problema social que necesitamos denunciar y erradicar, proponiendo medidas sociales, políticas e institucionales.

La música, la danza, la imagen, el sonido, la luz... serán elementos escénicos a través de los cuales intentaremos mostrar y sentar las bases para un debate, para el diálogo abierto en el que todos y todas podremos y debemos participar”.



ERAKUSKETAK
EXPOSICIONES

apirilak 18-25 abril



Victoria Eugenia Antzokia

**Zinemaldiaren informazio bulegoa
Oficina de información del Festival
(Reina Regente)**



Ordutegia / Horario:
11:00 – 14:00 / 16:00 – 20:00

**TRATU TXARRIK GABEKO BIZITZAREN ALDE
Umore Grafikoaren Nazioarteko Erakustaldia**

**POR UNA VIDA SIN MALOS TRATOS
Muestra Internacional de Humor Gráfico**

Erakusketa honek nazioarteko umore grafikoaren ehun artista baino gehiago bildu ditu, hainbeste emakumek beren bikotekidearengandik jasotako tratu txarren ondorioz, indarkeria matxistaren biktima izateari uzteko oraindik bide luzea egin beharra dagoela gogorarazteko. Umorea indarkeriarik gabeko indarra duen inteligentzia denez, helburu hau betetzea hiritar guztioi dagokigula esaten digute artistok beren lanekin. Emakumearen kontrako Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzaren eta Alcalá-ko Unibertsitatearen Fundazioaren ekoizpena da.

Esta exposición ha reunido a más de cien artistas del humor gráfico internacional para recordarnos que aún hay mucho camino por recorrer para que muchas mujeres dejen de ser las víctimas del maltrato machista de sus parejas. Con la inteligencia desarmante del humor, la obra de estos artistas nos dice que ese objetivo incumbe a toda la ciudadanía. Esta muestra viene producida por la Delegación Especial del Gobierno contra la Violencia sobre la Mujer y la Fundación General de la Universidad de Alcalá.



apirilak 3 abril – maiatzak 3 mayo

C.C. Ernest Lluch K.E.

Ordutegia / Horario:
asteleheneretik ostiralera / de lunes a viernes:
16:00 – 20:30
larunbatak / sábados: 17:00 – 21:00



ELNAREN AMA-ETXEA
Deserriaren sehaska 1939-1944

LA MATERNIDAD DE ELNA
Cuna del exilio 1939-1944

Bartzelona, eta Katalunia osoa, Francoren armadaren pean erori zenean, milaka katalanek Pirinioak zeharkatu zituzten deserrira bidean. Generalitat de Catalunya-yako Direcció General de la Memòria Democràticak **Elnaren ama-etxea** izenez bildu dituen argazkiak mugaz gaindiko elkartasun historiaren lekuko dira; errefuxiatu eremuen gabeziei aurre egiteko maistra suitzar batek sortutako ama-etxearen historiaren lekuko.

Cuando Barcelona, y con ella Cataluña, cayó en manos del ejército de Franco, miles de catalanes y catalanas cruzaron los Pirineos rumbo al exilio. Las fotografías que la Direcció General de la Memòria Democràtica de la Generalitat de Catalunya ha reunido bajo el título de **La maternidad de Elna** son el testimonio de una historia de solidaridad por encima de las fronteras, la de una maestra suiza que crea una maternidad para atender las necesidades de los precarios campos de refugiados.

apirilak 1-29 abril



**Udal Liburutegi Nagusia / Biblioteca Central
(Alderdi Eder)**

Ordutegia / Horario:
asteleheneretik ostiralera / de lunes a viernes:
10:00 – 20:30
larunbatak / sábados: 10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:00



**EMAKUMEA, DESERRIA, EDERTASUNA
LA MUJER, EL EXILIO, LA BELLEZA**

ACNUR Errefuxiatuen Aldeko Nazio Batuen Komisionatu Nagusiak aurkezten dizkigun 53 argazki hauek, leiho baten gisara, errealitate bat zabaltzen digute, gerratik, gosetetik, epidemiatik edo jazarpenetik ihesi lekualdatu beharra duten pertsonen errealitatea, hain zuzen. Errefuxiatu eremuetako bat-bateko kanpalekuetan, pozak eta itxaropenak bide egiten dute gabezien eta zailtasunen artean.

Estas 53 fotografías son una ventana que el Alto Comisionado de Naciones Unidas para la Ayuda a los Refugiados (ACNUR) nos abre a la realidad de las personas que se ven obligadas a desplazarse del lugar en el que viven para huir de una guerra, una hambruna, una epidemia o una persecución. En el asentamiento improvisado de los campos de refugiados, la esperanza y la alegría se abren paso entre la escasez y las dificultades.



apirilak 1-30 abril

C.C. Loiola K.E.

Ordutegia / Horario:
asteleheneretik ostiralera / de lunes a viernes:
16:00 – 20:30
larunbatak / sábados: 17:00 – 21:00



**GEUREAK ERE BADIRA ADINGABE HORIEK
TAMBIÉN SON NUESTROS MENORES**

Europar bizimodu hobea izateko aukera bilatzen duten etorkinen artean gazte asko egoten da, batzuetan ia-ia umeak dira. **Geureak ere badira adingabe horiek** begirada bat da, ziurtasunik gabeko bidaiari eta itxaropenaren bide zailari begira: dagoeneko gure artean diren baina oraindik gure laguntza behar duten 17 urteko adingabeen argazki eta lekukotzak. SOS Arrazakeriak ekoiztutako erakusketa da.

Entre los y las inmigrantes que buscan la oportunidad de una vida mejor en Europa hay muchos jóvenes, a veces casi niños y niñas. **También son nuestros menores** es una mirada a su viaje incierto y al difícil camino de la esperanza: fotografías y testimonios de menores de 17 años que ya están entre nosotros, pero que siguen necesitando de nuestra ayuda. Exposición producida por SOS Racismo.

apirilak 1 abril – maiatzak 31 mayo



FNAC


Ordutegia / Horario:
astehenetik larunbatera / de lunes a sábado:
10:00 – 22:00



LAS 13 ROSAS

30 irudi ikusgai, Emilio Martínez-Lázaroren **Las 13 rosas** (2007) filma egin bitartean Adriano Castoro londrestar argazkilariak ateratakoen artean aukeratuak. Hamahiru emakume errugabek pairatutako ankerraren eta bidegabekeriaren errealitatea agerrarazten duen filmaren espiritua jaso du Castorok. Erakusketaren osagarri, argazki historikoak ere badaude, hain zuzen Madrileko Erkidegoko Artxibo Erregionalean originalak gordetako Martín Santos Yubero Argazki Funtsaren baimenaz egindako erreprodukzioak. Irudietan, 1939ko Madril, hiriburuan Francoren tropen sarreraren eta Garaipenaren Desfilea delakoaren berri ematen duten argazkiak.

Una muestra de treinta imágenes realizadas por el fotógrafo londinense Adriano Castoro durante el rodaje de la película de Emilio Martínez-Lázaro **Las 13 rosas** (2007). Castoro capta en sus fotos el espíritu de un film que recrea la historia de crueldad e injusticia que sufrieron trece mujeres inocentes. La exposición se completa con fotografías históricas cuya reproducción ha sido realizada con la autorización del Fondo Fotográfico Martín Santos Yubero, albergado en el Archivo Regional de la Comunidad de Madrid, donde se encuentran las originales. Imágenes del Madrid de 1939, documento de la entrada de las tropas de Franco a la capital y del llamado Desfile de la Victoria.



LITERATURA



MAHAI - INGURUA
MESA REDONDA



apirilak 21 abril

**Liburutegi Nagusiko Ekitaldi Aretoa
Sala de Actividades de la Biblioteca Central
(San Jerónimo)**

• 18:00

DK.LITERATURA

***Habíamos ganado la guerra* liburuaren aurkezpena
Presentación del libro *Habíamos ganado la guerra***



Oroimenezko liburu honetan, Esther Tusquets-ek, bere haurtzaro eta nerabezaoren ariora, Francoren alde egin eta garaipenaren pribilegioak gozatu zituen burgesia katalanaren erretratua marrazten du.

Esther Tusquets dibuja en estas memorias, al hilo de su infancia y adolescencia, el retrato de una burguesía catalana que apoyó a Franco y disfrutó de los privilegios de la victoria.


apirilak 24 abril

Cristina Enea

• 18:00

Mahai-ingurua / Mesa redonda
**Klima aldaketa eta migrazio-fenomenoak /
Cambio climático y fenómenos migratorios**

Parte-hartzaileak / Participantes: Eider Huertas ("Ingurumenaren Biografiak" proiektuaren koordinatzailea / coordinadora del proyecto "Biografías del Medio Ambiente"), Jesús Torquemada (nazioarteko gaien analista / analista en temas internacionales), Agustín Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria / SOS Racismo). **Moderatzailea / Moderador:** Denis Itxaso (Ingurumeneko Zinegotzi Ordezkaría / Concejal Delegado de Medio Ambiente).



MUSIKA
MÚSICA



INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN

apirilak 18 abril

Victoria Eugenia Antzokia



JUM JUM



**DAVID ESCUDERO
QUARTET**

apirilak 20 abril

• **18:00** Antzoki Zaharra / Teatro Principal



LURRAREN SOINUAK / SONIDOS DE LA TIERRA

Famili kontzertua

BUKAERA FESTA / FIESTA DE CLAUSURA

apirilak 25 abril

Victoria Eugenia Antzokia



JORGE PRIMO



JAVI P3Z

Donostia / San Sebastián



Giza Eskubideen Zinemaldia
Festival de Cine y Derechos Humanos
Human Rights Film Festival

Antolatzaileak / Organizadores



Donostia Urdia
Ayuntamiento de San Sebastián



Gazteria eta Giza Eskubideak Atala
Sección de Juventud y Derechos Humanos

Babesleak / Patrocinadores



VICT 2006

Con el apoyo financiero del programa VICT
Comisión Europea - Dirección General Justicia, Libertad Y Seguridad

Parte-hartzaileak / Participantes



Laguntzaileak / Colaboradores



5.000 orriko liburuak | 1.050 € de baliabete | 1.000 orriko liburuak